

GANADOR JUVENIL CONCURSO LITERARIO DEL CENTENARIO

Burdina Altos Hornostik ateratzen zenenan, giro grisa zegoenean kea zela eta, eta, itsasadarra marroia zegoenean, klub bat zegoen Barakaldon Barakaldo CF zeritzona, non nire osaba jolasten baitzuen.

Berak kontatu zidan 4 urtez egon zela klub horretan jolasten 1988-garren urtean hasiz 1992. Urteraino. Berarentzat kluban egon zen denbora oso entretenigarria izan zen hori dela eta, interesa hartu nuen Barakaldo CF-ean eta Antzinako Barakaldoren itxuran. Urte horietan, jolasten zuten zelaia areazkoak edo lurrazkoak ziren, euria egitean lokatsa bihurtuz, gaur egun ez bezala non zelaia belar faltsukoak baitiren, denbora horretan oso arraroa zen belarraz osatuta zegoen zelaia batean jolastea ez zeudelako asko horrelakoak zirenak.

Askotan, etxera lokatsez beteta ailegatzen zen eta erabiltzen zituzten botak ezin ziren ikuzgailuan sartu. Baina hor zegoen nire aitite patzientzia handiaz balkoira ateratzen zen garbiontzi batekin osabaren zapatilak garbi- garbi usten. Gaur egun erabiltzen dituzten uniformeak ez dira asko aldatu nire osaba jolasten zuen denboratik. Erabiltzen dituzten uniformeak berdinak dira, erabiltzen zituzten oinetakoak aurrean lau tako zituzten eta atzena aldiz, 2 gainera, pilotak larruzkoak ziren eta euri egunetan pisua hartzen zuten buruz emateko aukera asko kenduz. Berak esaten zidan belarreko zelaia luxuzkoak ziren aurrean esan ditudan arrazoiengatik.

Nire osaba, Barakaldoko futbol kluban hasi zen 11 urterekin 15 urteraino. Berak kluban jolastutako urteetan denboraldi batean txapeldun gelditu ziren 1989-1990. urtean hain zuzen ere, beste urte batean bigarrenak gelditu ziren 1988-1989. urtean hain zuzen ere. Geratzen diren bi urteetan ezin ziren posizio horretara ailegatu baina gogoz jolasten jarraitu zuten. Txapeldun geratu zirenean bi sari eman zieten lehenengoa, kopa bat izan zen eta bestea, janari bat izan zen Laredoko jantoki batean.

Urte horietan zeuzkaten baldintzak ez ziren orain dauzkagun baldintzak bezalakoak, urte batean uraren restriktzioa izan zuten Euskadi osoan hori dela eta, partiduak jolasten zituztenean dutxatzeko ur ontzi bat ematen zizkioten guztiz beteta dutxatu ahal izateko. Beste denboraldi batean, Arboledan jolastu zuten baina hotza dela eta zelaia elur bete batean jolastu behar izan zuten eta dutxatzean arropa eta guzti sartu behar izan ziren temperatura beroa nolabait mantendu ahal izateko.

Denboraldi latza zegoen Barakaldon gaur egun ez bezala. Lantegiak, haren soinua, grisaz zerua tintatzen zuen kea eta hortik sortutako kontaminazioa Bizkaiako Altos Hornos dela eta paisaia asko aldatu zuen. Megapark-a ez zen existitzen, haren lekuan laku handi bat zegoen non persona batzuk bainuak hartzen baitzituzten, Barakaldo inguratzen zituzten landak infinitura ikusten zirela... Gaur egun egin diren aldaketa hauek gure bizitza errezago egiteko, baina oraindik ikusi ahal da antzinako Barakaldoren nostalgia pertsona askotan gehienbat amonak nahiz aititetan.

Nire osabari galdetzean zer iruditu zitzaion denbora hori esan zidana buruan geratuko zait luzerako; Berak bizi duen denborarik onenak izan ziren, landetan zehar bere lagunekin jolastuz eta korrikaz leku batetik bestera joaten irribarre handi batekin. Ume baten irribarrearekin.

GORA BARAKALDO C.F eta GORA BARAKALDON BIZI DIREN BIZTANLEAK!